

## **KULUNKA (Garapenaren alterazioak dituzten haurren arretarako elkarte)**



Estrasburgo ibilbidea, 2A, 2. solairua, 2. bulegoa, 01002 Vitoria-Gasteiz

**945 156 254**

[info@kulunka.org](mailto:info@kulunka.org) / [www.kulunka.org](http://www.kulunka.org)

Terapia okupazionalen diplomatutako hiru emakumek sortu zuten KULUNKA Euskal Autonomia Erkidegoan, komunitateari garapen-alterazioak dituzten haurren artean parte-hartze okupazionala sustatzeko zerbitzuak eskaintzeko helburu nagusiari jarraiki. Beren beharrei erantzuteko zerbitzuak sortzen dituzte.

KULUNKAK informazioa ematen die familiartekoei, profesional sanitarioei, sozialei eta hezitzaileei haurren garapenaren alterazioek eguneroko bizitzako jardueretan, eskola-funtzionamenduan, ikaskuntzan, joko sozial eta indibidualean, jokabidean eta familia-harremanean dituzten ondorioei buruz.

Haurren jardun okupazionalerako zentzumenen eta arlomotorraren garapenaren eraginari garrantzi berezia ematen zaio, besteak beste, garbitasun- eta elikadura- jarduerak, jolas-jarduerak, eskola-ikaskuntzak eta soziabilitatea- Laguntza-programetan parte hartzen duten profesionalei etengabeko prestakuntza ematen dietem haien kalitatea hobetzen laguntzeko, eta entitate eta erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen dira garapen-alterazioak dituzten haurrei arreta emateko programak egiten.

# Fundación Vital Fundazioaren lankidetzak

2017an hasi zen KULUNKArekiko lankidetzak, elkarteak Gizarte Erakundeentzako Laguntzen Deialdira aurkeztu zuen 'Komunikazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza' proiektua babesuz. Ondorez, COVID-19aren pandemian zehar, 'Covid-19 krisian hurrei eta haien familiei laguntzea' proiektuari eman zitzaion laguntza.

2021ean, KULUNKAK 'Aisialdi eta denbora libreko topaketak' proiektua aurkeztu zuen Vital Fundazioaren laguntzen deialdira eta horri ere laguntza eman zitzaion.